

itzulpena: Iñigo Aranbarri

Aime Casaire





**Munduko
Poesia
Kaierak**

Aime Cesaire

itzulpena: IÑIGO ARANBARRI

 **Susa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© Aime Cesaire

© itzulpenarena: Iñigo Aranbarri

© edizio honena: Susa

2014ko martxoa

Munduko Poesia Kaierak

bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola

<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Aime Cesaire beltzen identitatearen eta beltzek idatzitako literaturaren aldarrikatzaile nagusienetakoa izan zen. Hark asmatu zuen *négritude* (negritudea) kontzeptua 1935ean, eta urte luzetan beltzen askatasunaren aldeko militantzia politiko zein poetikoari atxiki zitzaion.

1913an jaio zen Martinikan, eta han igaro zuen gaztaroa harik eta beka bat lagun Parisa joan zen arte ikasketak unibertsitatean jarraitzera. Bi gerra handien arteko Paris zen hura, mundu guztiko idazle, intelektual, artista eta beste bildu zituenekoa. Han bizi ziren, Cesaire gaztea paristartua zelarik, besteak beste, Gertrude Stein, Pablo Picasso, James Joyce, Francis Scott Fitzgerald, Vicente Huidobro, Cesar Vallejo eta enparauak. Cesairek, ordea, idazle eta intelektual beltzekin izan zuen harreman handiena. Hala, Leopold Sedar Senghor senegaldarrarekin eta Leon-Gontran Damas guyanarrarekin *L'Étudiant noir* (ikasle beltza) aldizkaria sortu zuen 1934an. Aldizkari hartan eta ondorengo testuetan gorpuztuko zituzten aipatu idazleek belztasunaren inguruko hausnarketak eta idazkiak. Ildo horren baitan ulertu behar da, halaber, Cesairek idatzi zuen tesia, Langston Hughes

eta Claude McKay poeta beltzei buruzkoa izan zena. Bi poeta horiek funtsezkoak izan ziren “Harlemgo berpizkundea” izeneko mugimendu poetiko eta kulturalean 20ko hamarkadan, eta honenbestez, Cesaire eta abarren negritudeak, neurri batean bederen, handik ere edaten du.

Cesaireren lehen lana *Cahier d'un retour au pays natal* (*Sorterriratze baten kaiera*) poema luzea izan zen, 26 urterekin idatzi zuena, eta gerora sarritan moldatu eta berridatziko zuena. Huraxe da haren lan poetiko ezagunena. Antologia honetan osorik du irakurleak 1956ko behin betiko bertsioan. Argitaratu zen urtean ez zuen sona berezirik izan baina urte gutxiren buruan famatuko zen Andre Bretoni esker. Nazien okupaziotik ihesi, Breton Martinikan egon zen zenbait egunetan New Yorkera joan aurretik eta han ezagutu zuen Cesaireren estreinako lana. Poemaren indarrak zafratuta, berehala laudatuko zuen Cesaire gaztearen obra eta hitzaurre bat idatziko zion “Poeta beltz handi bat” izenburuarekin.

Sorterriratze baten kaiera eldarnio moduko bat da, hordialdi poetiko modukoa. Martinikako beltzen egoera lazgarria salatzen du; haien bizitokiak, haien baldintza sozial miserableak. Kritiko bezain autokriti-

koa da, zurien gailentasuna salatzeaz bat madarikatzen du beltzen bezatzea, nola beltzek onartzen duten finean beren egoeraren petrala. Halaxe ulertzen ahal da, esaterako, autobus batean beltz handikote eta itsusi batekin izandako enkontruaren deskribapen gupidagabea, non morroia krudelki irudikatzen duen.

Kaier honetan, dena den, *Sorterriratze baten kaieraz* landa, Cesaireren ibilbide poetikoko beste garai eta liburu batzuetako poemak ere topatuko ditu irakurleak.

Cesaireren poesia negrotasunaren inguruko hausnarketa den heinean, hots, identitate baten erakitze eta deseraikitze gisako bat, euskal poesian idatzi diren hainbat poemaz akorda daiteke irakurlea, distantziak distantzia. Han-hemenka egiten dute oihartzun, tentuz eta apalki bada ere, Gabriel Arestiren harrizko etxeak, Joxe Azurmendiren manifestu berantiarrak, Koldo Izagirreraren euskalduntasunak. Euskal irakurleak harrizkoa, berantiarra eta euskalduna izaten jarraituko du antologia honetatik igaro ostean, esan gabe doa, baina apur bat negroagoa izango da aurrerantzean halaber.

BEÑAT SARASOLA

Sorterriratze baten kaiera

Egunsentiko hondar orduan...

Hoa, niotsan nik, txakur-mutur, hedexuri-mutur hori; hoa, gorroto ditiat ordenaren otseinak eta itxa-ropenaren erlamandoak. Hoa, kutun gaizto, fraideki-zimitz hori. Gero, itzulirik harentzat eta haren ingurukoentzat galduak ziren paradisueta, burutapen nekagaitz baten lurrunek lotaratua, gezurretan dabilen emakumearen begitartea baino lasaiago, jaten ematen nion haizeari, munstroak askatu, eta hondamendiaren bestaldetik usapalak eta pagotxak entzuten nituen ibaika igotzen etxerik harroenen hogeigarren solairuaren garaiera iruntzietara daramadan sabana honetatik; sabana hau, beti neurekin daramadana goiz-alba aroetako indar ustelen kontra, gau eta egun eguzki sakratu benereo batek urraturiko sabana.

Egunsentiko hondar orduan badia hauskorrez ernaberrituriko Antilla gosetuak, astanafarrerriak jotako Antillak, alkoholez dinamitaturiko Antillak, badia ho-

netako lokatzetan, hiri honetako hautsetan ilunki hondoa joak.

Egunsentiko hondar orduan, uraren zauriaren gainean, idorturiko zolda engainagarria, berealdikoa; lekukotasunik ematen ez duten martiriak; odol-loreak, loro kalakarien txilioen gisa alferrikako haize-bean zimeltzen eta sakabanatzen direnak; gezur-irri-barrez dagoen bizitza zahar bat, estutasun aihergabeek zabaldurik ezpainak; miseria zahar bat eguzkipean isilean usteltzen; isiltasun zahar bat, oilaur epletan lehertua, gure izate-arrazoia hutsaltasun zantarra.

Egunsentiko hondar orduan, berez duen etorkizun oparoa laidogarriri atzean uzten duen lur geruza are hauskorrago honen gainean —sumendiak lehertu egingo dira, ur argiak eguzkiaren orban helduak eramango ditu, ez da itsas hegaztiek mokoz jotako irakinaldi epela baino geratuko—, ametsen hondartza eta iratzartze zentzugabea.

Egunsentiko hondar orduan, hiri lau hau —zabal-zabal dela, zuhurtziak behatopatia, nagi, behin eta

berriro hasten den gurutzezko fardel geometrikoaren mendean gose, patuarekiko menderakaitz, mutu, beti ere muzindu, lur honen izerdiak elikaturik hazteko ezgai, nahasi, muskildu, azpiratu, animaliaz eta landarez gabetua.

Egunsentiko hondar orduan, hiri lau hau —zabal-zabal dela...

Eta hiri nagi honetan, hiria bere joan-etorritik, bere norabidetik bezala bere garrasiaren aldamenetik hain harrigarriro igarotzen den jendetza zaratatsu hau, batere larritzeke bere egiazko garrasiaren alboan, entzun nahiko zen bakarra, bera delako berezkoztat daukan bakarra; sentitu egiten delako bere baitan, itzal eta harrotasunezko aterpe sakonen batean bizi dela; hiri nagi honetan jendetza hau, bere gose, miseria, asaldatze, herra-oihuaren alde-aldean, hain jendetza zaratatsu eta harrigarriro mutu hau.

Hiri nagi honetan, besteengana biltzen ez den jende ohi ez besteko hau, nahasten ez dena: trebea aurkitzen akordio eza, itzuria, ihesa ikusten. Jendetza osatzen ez dakien jendetza hau, jendetza hau, eta

norbera ohartzen da honetaz, hain osoro bakarrik eguzkipean non emakume bat dirudien bere ibilera lirikoaren bilin-balaunari zeharo emana, bat-batean balizko euriari dei eginda ez jausteko agintzen diona; edo motiborik gabeko aitaren bizkor bat dirudiena; edota zangoak zabal eta zurrun, pixa zutik egiten duen emakume nekazariaren bat-bateko animaltasun egiazkoa.

Hiri nagi honetan eguzkitan nahigabetutako jendetza hau, berea den lur honen argitasun betean, esaten, baieztatzen, askatzen den ezertan ere parterik hartzen ez duela. Parterik hartu gabe frantsesen Josefina enperatrizaren kontuetan, negrailaren gaine-tik amets egiten zuen harenetan. Ezta harri zurituzko liberazioan gogorturiko askatzailearenetan ere. Ezta konkistatzailearenetan ere. Parterik hartu gabe ez mespretxu honetan, ez askatasun honetan, ezta auserdia honetan ere.

Egunsentiko hondar orduan hiri nagi hau, eta gainerako legen, herbaltze eta goseak, sakanetan kuku-turiko izuak, arboletara igotako izuak, lurrean zulatu-tako izuak, zeru goietan noraezean dabiltzan izuak,

pilatzen joan zaizkion izuak eta larritasunezko ke-
adarrak.

Egunsentiko hondar orduan, burkaitz ahaztua,
jauzi egiten ahaztu zaiona.

Egunsentiko hondar orduan, apatx urduriko bur-
kaitz otzana —haren odol paludikoak, taupada bizko-
rrez, nahasi egiten du eguzkia.

Egunsentiko hondar orduan, sute neurritsua bur-
kaitzean, negar-zotina nola, lehertze odoltsuaren mu-
gan bozatu dena ezkututzen eta ezagutzen ez den ig-
nizioaren bila.

Egunsentiko hondar orduan, upelen eta erroten
zelatan den bulimiaren aurrean kukubilko, burkaitza,
goitika eginda giza-nekeak; burkaitz gorria, eta haren
odol isuria; burkaitza eta haren itzalezko bendak;
burkaitza eta haren izu-errekak; burkaitza eta haren
esku handi haizezkoak.

Egunsentiko hondar orduan, burkaitza gosekilik,
eta inor ez egokiagorik burkaitz bastart hori baino ja-

kiteko zergatik suizidak, hipoglosoaren lagun eginda, atzeratu duen mihia ito den arte; zergatik Capot ibaian emakume batek plantxa egiten dabilela dirudien (haren soin malgua, argikiro ilun, zilborrak esaten dionera moldatzen da), baina ez den ur zaratazko fardo bat baino.

Eta ez maisuak eskolan, ez apaizak dotrinan aterako dio hitzik logurak erreta dagoen beltz horri, bibiek indarrez joko duten arren hatz-muturrez kaskar motzean, haren ahotsa gosearen urmaeletan ahiduraz buxatu delako (hitz bat-hitz-bakar-bat eta ahantz-zaitzekete-Gaztelako-Blanca-erregina, hitz bat-hitz-bakar-bat, begira-basakristau-ttipi-horri-Jainkoaren-hamar-aginduetatik-bakar-bat-ere-ez-daki) haren ahotsa gosearen urmaeletan ahanzten delako eta ezin delako ezer, benetan ezer atera alprojatxo honen baitarik
ezpada dagoeneko haren ahotsaren txikotetara igozten ez dakien gosea
gose baldar eta makala
burkaitz gosekil honen Gosearen barren-barrenean ehortziriko gosea

Egunsentiko hondar orduan hondo-jotze ez ohiko hau, ustelkeriaren kirats hiratua, hostiaren eta biktimarioaren sodomia beldurgarriak, aurreiritziaren eta ergelkeriaren brankako zuaker igaroezinak, prostituzioak, hipokrisiak, lizunkeriak, traizioak, gezurrak, zurikeriak, eskupeko behartuak —koldarkeria urrien itoaldia, ernamuin gehiegizkoen nekerik gabeko karrak, espak, histeriak, perbertsioak, miseriaren arlekinkeriak, mankatzeak, erresuminak, urtikariak, endekatzearen hamaka epelak. Hona zorne-zorro gingiltsu eta irrigarrien joan-etorria, mikrobio zinez bitxien loditu beharra, sendabide ezagunik gabeko pozoiak, ondo zauri zaharretako jainko-odolak, espezie ustelkorren hartzidura esperogabea

Egunsentiko hondar orduan, gau handi eta geldia, balafon hautsi bat baino hilago izarrak,

gauaren erraboil teratikoa, geure ukatzez eta doilorkeriaz ernatua.

Eta gure imintzio ergel-eroak une hautatuen urrezko zipriztinak susper daitezen, garai bateko dis-

tira hauskorra ekarritako zilbor-hestea, lagun giroko ogi eta ardo, egiazko ezteietako ogi, ardo eta odol.

Eta antigoaleko alaitasun hau, egungo miseriaren berri dakarkidana, bide konkordun bat amildegian behera murgiltzen dena etxola batzuk barreiatzeko; gain baterantz ziztuan doan nekerik gabeko bidea etxolaz betetako putzu batean buxatzeko, ero-eroan igo eta ausartegi jaisten den bidea, eta barregura eragiten duten ohol gaizki josi batzuk porlanezko zutoinen gainean, nik “gure etxea” deitzen dudana, xafra kizkurrez egindako orrazkera horrekin, ezta lehortzen jarritako larrua balitz ere; jangela, iltze buruak dirdirka dituen zoru latza, pinuzko eta itzalezko habeak sabaian alderik alde, lastozko aulki beldurgarriak, argi griseko lanpara, bernizatua eta berehala labezomorroz betetzen dena, min eman arterainoko burrunban...

Egungo hondar orduan, herri esentzialago hau osteratu neure sabelkeriara ekarria, ez samurtasun lausoz, ezpada burkaltzetako titi mardoaren bategite sensual oinazezkoa halabeharrezko palmondoan duela ernamun gogortu, uhaitzen poztasun etena, eta

Trinité-tik Grand Rivière-raino, itsasoaren milikatze histeriko gaitza.

Eta arin doa denbora bere bidean, benetan arin.

Hala joan zen abuztua, mangoak ilargi erdiz apaintzen direnean; iraila, zikloien emagina; urria, kanaberen su-emailea; azaroa, destilategietan urru-maka dabilena; Eguberria zen, hastera zihoan.

Eguberria bazetorrela desio azkura batez iragarri zen lehenik, samurtasun berrien egarriz, amets lau-soen ernamuinez; gero bat-batean hegatu zen, alaitasun hegal handien frufu more gozo harekin, eta berehala amildu zen herri gainera, granada aski heldu bat bezala lehertua, bizipoza ekartzera etxoletara.

Eguberriak ez zuen osterantzeko jaien antzik. Ez zuen kalez kale ibiltzea maite, ez plazaren erdian dantzatzea, ez zurezko zaldikoetara igotzea, ez zen jendearen emanaz baliatzen emakumeei ipur-mamietan atximur egiteko edota tamarindoen parean suzko erroberak botatzeko. Agorafobia zuen Eguberriak. Behar zuena egun beteko hara-honakoa zen, prestaketak, sukaldeko beharrak, garbiketa lanak, kezkak, iritsiko-ez-den-beldurra, faltako-den-beldurra,

aspertuko-ote-garen-beldurra;
gero iluntzean elizatxo bat, ez inor izutzekoa, boron-
date onenez irriz, marmarez, isilmandatuz, maitasun
aitorpenez, gaitz-esanez eta etorri oneko xantre ba-
ten eztarri kakofoniaz betetzen uzten zena, eta adis-
kide alai eta bizinahiez, eta barruki gozoko etxoletan,
xuhurkeriarik gabe, hogeiren bat lagun elkartzen di-
ra, eta kaleak hutsik daude, eta herria kantu-buketa
da, eta ederto baten egoten da barruan, ondo jaten
da, eta pozarren edaten, eta odolkia dago, hatz biko
mehe horietakoa, itzulikari kiribiltzen dena, eta bes-
tea, zabalagoa eta lodiagoa dena, eta gozo horieta-
koa, dastaz ezkaia dirudiena, edo beste min hori, go-
ritasun piperrautsezkoa, eta erretzen duen kafea eta
anis gozatua, eta pontxesnea, eta ronen eguzki liki-
doa, eta muki-mintzek hartzera behartzen zaituzten
gauza on horiek guztiak, edo liluraz destilatzen dizki-
zutenak, edo agian lurrin gozoz ehuntzen, eta irri egi-
ten da, kantatu egiten da, eta leloak gora eta gora lu-
zatzen dira, kokondoak bezala begi bistatik galdu ar-
te:

Aleluia

Kyrie eleison... leison... leison,

Christe eleison... leison... leison.

Eta ez dira soilik ahoak kantuan ari direnak, es-
kuek abesten dute, oinek, ipurmasailek, sexuek, eta
izakia da, osoki hots, ahots eta oinots bilakatzen de-
na.

Gora bidean gailurra jota, hodeia balitz bezala le-
hertzen da bozkarioa. Kantuak ez dira eteten, artega
eta astun, izuaren ibarretan barrena, larriaren tune-
letan eta infernuko garretan doaz pirritan orain.

Eta orain gertuen daukan deabruaren buztanetik
tiraka dabil bakoitza, izua ametsaren hondar xehee-
tan ezarian galtzen den arte, eta bizi, eta edan, eta
oihu, eta kantuan amets batean bezala egiten da, eta
lo ere amets batean bezala, betazalak arrosa petaloz-
koak direla, eta eguna zapoteondoa bezain belusezko
dator, eta kakao-sailetako sats-uraren hatsa, eta in-
dioilarrek zuldar gorriak zuritzen dituzte eguzkitan,
eta kanpaien ekina, eta euria,

kanpaiak... euria...

dilin... dalan... dilin...

Egunsentiko hondar orduan, hiri lau hau —zabal-
zabal dela...

Aztaparka dabil inoiz inolako gogorik gabe zerurantz kiribilduta protesta garaieraz harrotzeko. Etxeen bizkarrak suz gizendutako zeruaren beldur dira; hauen oinak, zorutikako uholdeena; eta hala, nahiago izan dute ezusteen eta traizioen gainean doi pausatu. Baina hala ere, hiriak aurrera egiten du. Egunero bazkatzen bada ere ahalkezeko pertsianen pasabide lauzaturikoen, patio likatsuen, tantaka diren margoen mareaz bestalde. Eta eskandalu ito ziztrinek, lotsa akitu ziztrinek, arrangura larri ziztrinek koskorrak eta zuloak eragiten dituzte kale-zulo estuetan, non halako keinu batez, gorotz artean erreka bat doan...

Egunsentiko hondar orduan, bizi makaldua, amets etenak nora igorri ez dakiena, hanpadurarik eta sakonunerik gabea, zalantzati bere bidean eta zoritxarrez hutsik, biziaren ibaia edonor bere onetik atera arteko baldartasunez doa, gogaitzaren inpartzialtasun astuna, itzalak han-hemen berdin banatzen gauza guztien gainean, aire geldia berau zulatuko duen txoriaren argitasunik gabe.

Egunsentiko hondar orduan, kirats nazkagarriko beste etxola bat kale-zulo estu batean, zur ustelduzko erraietan dozenaka arratoi eta nire sei anai-arreben iskanbila gordetzen duen etxe ezin ttipiagoa, etxola bihozgabe bat, bertan erotzen dizkigu setakeriak hilabete hondarrak, eta gure aita barratsua, sekula jakin ez dudan miseriaren batek ozpindua, batean sorginkeria ezusteko batek malenkonia samurrera gozo daramana eta bestean suak hartu arte berotzen duena; eta gure ama, gure goseagatik pedalei aspergaitz eragin eta eragin, gau eta egun pedalei eragiten, eta gauerdian iratzartzen nauten nekerik gabeko zango horiek gauerdian eragin eta eragin ari direnak, eta amak eragiten dion Singerraren karrakaren hozkada gauaren mami gurian, gau eta egun eragin eta eragin gure goseagatik.

Egunsentiko hondar orduan, aitaz eta amaz harago, gorrinak oinazeturiko muxikondoa nola, puslez harrotutako etxola, eta sabai meharra, petrolio-bidoi txatalez adabatua, hala osatzen dira herdoil zingirak lasto arteko ore grisaxka zikin eta kirastuan, eta haizea dabilenean, ohi ez bezalakoa bihurtzen dute adabakiok hotsa, zerbait frijitzen ariko balira bezala hasieran, uretan sartzen den ilintiarena gero, dariola

daraman adaxka-kearekin... eta oholezko kamaina hau, hemendik zutitu da nire arraza, nire arraza osorik oholezko etzangu honetan, keroseno tankez eginak hankak, elefantitisa balu bezala ohantzeak, bere antxume larruarekin, eta platanondo-hosto lehorrak, eta zarpailak, gure amonaren kamaina lastaira-nostalgia da (etzangu gainean, olioiz betetako pota batean kandela mutur bat, garra dantzan duena eulitzar batek bezala... eta pota gainean, letra urrekarak: ESKER MILA).

Eta lotsagarrikeria hutsa Lastokale hau,

heste-mutur higuigarria, herriaren lotsariak bezalaxoxea errepide kolonialean barrena ezker-eskuin teilatuen olatu grisen emana zabaltzen. Hemen ez da lastozko teilatua besterik, uhin zipriztinek ondu eta haizeak depilatu duena.

Mundu guztia bizi da Lastokaleari atzea emanda. Han galtzen da alferrik herriko gazteria. Han hustendu zikinkeria itsasoak, katu hilak eta lehertutako txakurrak. Kalea hondartzan itsasoratzen delako, eta

hondartza ez delako aski itsasoaren amorru apartsuarentzat.

Miseria hutsa ere bai hondartza hau. Zakar-tontorrrak usteltzen, atzealdeak isil-gordeka husten, eta hondarra beltza da, iluna, ez da egundo horren hondar beltzik ikusi, eta bertan bitsa uluka doa; eta itsasoak boxeoa muturrekoka darabil, edo txakurtzar bat da itsaso hau hondartzaren hanka-zainei milika eta haginka, eta hainbeste darabil ahutz artean non seguru osorik irentsiko duen hondartza eta honekin batera Lastokalea bera.

Egunsentiko hondar orduan, garai bateko haizea harrotzen da, saldutako fideltasunak, saihesten den dudazko eginbeharra, eta Europako beste egunsenti hori...

Abiatu.

Eta giza-hienak eta giza-panterak dauden bezala, ni
giza-judua izango naiz

giza-kafrea

Kalkutako-giza-hindua

Harlemgo-gizon-bat botorik ematen ez duena

giza-gosetea, giza-iraina, giza-tortura edonoiz harra-
pa, jipoitu, hiltzea dagoena —bai horixe, hil— inori
ezer esan beharrik gabe inori azalpenik eman beha-
rrik gabe

giza-judua

giza-progroma

txakurkume bat

eskale bat

baina akabatzen al da akaso Arrangura, ingeles seño-
ra batek jarriko lukeen harridura aurpegia bezain
ederra berau zopa-ontzian hotentote baten burezorra
topatzekeran?

Hartu-eman handien eta konbustio handien se-
kretua aurkituko nuke. Ekaitza esango nuke. Ibaia
esango nuke. Traganarrua esango nuke. Hostoa esan-
go nuke. Zuhaitza esango nuke. Euri guztiek ninduke-
te bustiko, ihintz guztiek arrosatuko. Odol sutua ba-
nintz bezala ibiliko nintzateke hitzen begiko jaidura
motelean, zaldi ero bihurtuta haur jaioberri odolbildu
etxeratze-agindu tenplu-aztarna harri-bitxi bihurtuta
meatzariak etsiarazteko bezain urrutiko. Ni ulertzeko
gauza ez litzatekeenak ez luke tigrearen orroa ere
ulertuko.

Eta zuok mamuok igo zaitezte kimikaz urdin inguraturiko piztia-basoz bihurrituriko makinez usteldutako okela-jujubaz saski bete ostraz begiz sisal ederrari moztutako uhalezko sare-ehunez giza larruz, eta zuek guztiok barnean hartzeko besteko hitzak izango ditut eta zu lur nagi lur hordi
lur sexu handi eguzkiari eskainia
lur eldarnio handi Jainkoaren zakilarena
lur basa itsasoko biltegitik ahoan zekropio eskukada batez igoa
oihan birjin eta eroarekin baizik aldera ez dezakedan begitarte iluneko lurra
neure esku balego neure aurpegia balitz bezala erakutsi nahiko nukeena
gizakien begi argiezinen aurrean
aski nuke zurrut bakarra zure peyote esnetik zugan aurkitzeko beti irudipenetik tarte berean —hamaika aldiz jatorragoa eta inongo arragok koskarik egingo ez dion eguzkiak gorritua— dena aske eta haurride artekoa duen lurra, nire lurra.

Abiatu. Ene bihotzak oparotasun harroz zegien murmurio. Abiatu... apal eta gazte helduko nintzateke neure herri horretara eta bere buztina nire hara-

giaren osagai duen herri horri esan: “Luzaroan ibili naiz noraezean eta zure zaurien laztura desertatura nator berriro”

Etorriko nintzateke neure herrira eta esango nioke: “besarka nazazu beldurrik gabe... eta hitz egiten baino ez badakit, zugatik dut hitz egingo”.

Eta esango nioke oraindik:

“Ene ahoa ahorik gabeko zorigaitzen ahoa izango da, ene ahotsa, etsipenaren ziegan eroritakoen askatasuna”.

Eta nentorrela neure kolkorako:

“Eta batez ere, gorputz eta arima nireak gorde zaitezte bata zein bestea ikusle jarrera antzuan besoak antxumatzetik, bizitza ez baita ikuskizuna, oinaze-itsa-soa ez baita antzeztokia, deiadarka ari den gizakia ez baita hartz dantzaria...”

Eta hona non etorria naizen!

Eta berriro bizitza herrenkari hau nire aurrean, ez bizitza hau, heriotza hau, zentzurik eta errukirik gabeko heriotza hau, heriotza hau non handitasuna aieneka hondoratzen den, heriotza honen ttipikeria dirdiratsua, ttipikeriaz ttipikeria herrenka dabilen he-

riotza hau; lehia ttipiko palakadok konkistatzailearen
gainera, morroi ttipien palakadok basatitzarraren
gainera, arima ttipien palakadok hiru arimadun kari-
bearen gainera,
heriotza alferrikako guztiok
absurdoak nire ezaguera irekiaren lokatz zipriztin-
pean
ipurtargi bakar honek argiztaturiko huskeria tragiko-
ak
eta ni bakarrik, egunsenti honetako eszena latza non
munstroen apokalipsia kulunkatu egiten den, gero,
inarrosirik, mututzeko
errauts, hondakin eta hondoratzezko hautu beroa

— Eragozpen bat dago oraindik! Bakar bat, arren,
bakar bat: ez dut eskubiderik nire bizitza arra-bete
kedartu honen neurritz kalkulatzeko; ez marraren gai-
netik lau hatz-betera dardaraka den elipse itxurako
ezerez honetara murrizteko, eta hala, ni naizen giza-
ki honek, latitudearen eta altitudearen artean har-
tzen nauen kreazioa eraldatzeko.

Egunsentiko hondar orduan,
egarri arra eta irrits tematia,

hona non nagoen senidetahun-oasi ezkoetatik erauzia ezerez lotsor hau ezpal gogorrez kizkurtzen da ostertz irmoegi honek kartzelarien gisa egiten du dardara

Zure azken garaipena, Traizioaren erroi egoskor hori.

Nirea dena, hil hurran diren milaka lagun hauek, nirea ere baden irlako kuia barnean jiraka; bere burua ukatzen duen nahiera larriaren antzera okerturiko artxipelagoa, esan liteke irrika amatiarra dela Amerika bata bestetik bereizten duen mintz hauskorrena babesten; eta haren hegalak, Gulf Stream baten pattar gozoa dariela Europarantz; eta goritasun-isurialdeetako bat, zeinaren gainean Ekuatorea hari-harian Afrikaraino doan. Eta nire irla hesitugabea, ausardia garbiko, zutik polinesia honen atzean; eta haren aurrean, Guadalupe, bizkarrezurra erdibitua duela; eta geure miseria berberaz egina, Haiti, non negrotasunak, aurrenekoz zutik paratua, gizaterian sinesten zuela aldarrikatu zuen; eta Floridako buz-tantxo barregarria, negroa urkatuta akabatzen den hori; eta Afrika, zizare baten antzera handiago Euro-

paren hispaniar oinetaraino hurreratua, biluzia, non
Heriok sega-ukaldi alimalezkoak egiten dituen.

Eta nik neure artean diot Bordele eta Nantes eta
Liverpool eta New York eta San Frantzisko
ez da mundu honetan eremu bakar bat nire hatz-mar-
ka digitala ez daramanik
eta nire orpo-hezurra etxe-orratzen bizkarrezurrean
eta nire ugerra harri-bitxien dirdiran!
Nor ni baino harroago gehiago duelakoan?
Virginia. Tennessee. Georgia. Alabama.
Eraginik gabeko matxinaden usteltze higuingarriak
odol ustelezko zingirak
zentzurik gabe bozatutako tronpetak
Lur gorri, lur odoleztatu, lur odolokideak.

Nirea ere bada: ziega ttipi bat Juran,
ziega ttipi bat, elurrak bi halako egiten ditu
bertako burdin-barra zuriak kartzela atarian
guardian dagoen zaintzaile zuria da elurra

Nirea dena
zuriz gatibu hartutako gizona
heriotza zuriaren deiadar zuriei

bakar-bakarrik aurre egiten dien gizona
(TOUSSAINT, TOUSSAINT LOUVERTURE)
heriotza zuriaren gabirai zuria seko liluratzen duen
gizon hori
bakarrik dagoen gizon bat harea zuriko itsaso an-
tzuan
zeruko uraren kontra harrotu den agure belzkara da
Heriok uztai dirdiratsua osatzen du gizon haren gai-
nean
heriok astiro izarniatzen du haren buru gaina
herio puzka, ero, haren besoetako kanabera heldue-
tan
herio kartzelan lauhazka zaldi zuri bat balitz bezala
herio katu begiak bezala itzaletan dirdirka
herio ura bezala zotinka irla zingiratsupean
herio zauritutako txoria da
herio urritzen
herio zalantzan
herio partyura izutia da
herio azken hatsa ematen isiltasunezko istil zuri ba-
tean

Gau-hanturak egunsenti honen lau ertzetan
heriotza gatzatuzko izu-ikarak

helmuga irmoa

oihuak lur mututuaren gainean zutik

ez da egundo lehertuko odol honen edertasuna?

Egunsentiko hondar orduan uhararik gabeko herriok, oroimenik gabeko bideok, triba-oholik gabeko haize boladok.

Zer ardura dio?

Esan egingo genuke. Abestu. Ulu egin.

Ahots betean, zabal, zu zinateke gure ondarea, zu gure aurreko muturra.

Hitzak?

A bai, hitzak!

Arrazoi hori, kotsakratzen zaitut iluntzeko haize hori.

Aginte-ahotsa zure izena?

Zartailuaren lili-koroia zait.

Edertasun, deitzen zaitut, harriaren eskakizun hori.

Baina ai! ene irriaren

kontrabando marrantatua

Ai, ene kresalezko altxorra!

Zuen arrazoibidea eta zuek gorrotatzen zaituzteguneko,

eromen goiztiarra dugu aldarrikatzen,
kanibalismo tematiaren eromen kartsua

Konta dezagun altxorra:
oroitzen duen eromena
ulu egiten duen eromena
ikusi egiten duen eromena
askatu egiten den eromena

Gainerakoa badakizue

2 gehi 2 5 direla
oihana miauka aritzen dela
zuhaitzak ateratzen dituela gaztainak surtatik
zeruak bizarra laztantzen duela
eta abarra eta abarra...

Nor gara, eta zeintzuk? Ederra galdera!

Hainbeste begiratu nien zuhaitzei haietako bat bihurtu nintzen
eta nire zuhaitz-oin luzeek zakukada pozoi franko zulatatu dute lur barrenean
hezurrezko tontor hiriak

hain estu hartu dit gogoa Kongok
non oihan eta ibai marmartiko Kongo bihurtu naizen
non zartailuak zutoihal handi baten modura
klask egiten duen
profetaren zutoihala
non urak
likuala-likuala egiten duen
non hiraren tximistak aizkora berdea jaurti
eta ustelduraren basurdeak bortxatzen dituen
sudur-zuloetako ertz zangar ederrean

Egunsentiko hondar orduan eguzkiak eztul egin
eta birikak egozten ditu

Egunsentiko hondar orduan
hondarrezko urrats ttipi bat
muselinazko urrats ttipi bat
artalezko urrats ttipi bat

Egunsentiko hondar orduan
polen-lauhazka gaitza
neskatilen urrats ttipien lauhazka gaitza
kolibri-lauhazka gaitza

sastakai-lauhazka gaitza lurraren bularra beherago-
tzeko

debekuen zaintza

bitsaren atarian ezartzen duzuen mugazain ainge-
ruok

aitor ditut nire krimenak ez daukat ezer esateko nire
burua zuritzeko.

Dantzak. Idoloak. Berriz eroria. Nik ere

hil dut Jainkoa nire nagikeriaz

nire hitzez nire keinuz nire kantu lizunez

Loro-lumak jantzi ditut katu musketadunaren larruak

Egonarria agorrazazi diet misiolariei

gizateriaren ongileak iraindu ditut.

Erronka jo diot Tirori. Erronka Sidoni.

Zambeze gurtu dut.

Lotsatu egiten nau nire maltzurkeriaren neurriak!

Baina zer txara zarratugatik gorde behar da oraindik

nire eskaletasunaren zero bizkorra eta ez ospatu

prestutasun ikasiaren arduragatik

nire pahuinoar itsustasanaren jauzi beldurgarria?

vum rooh oh

vum rooh oh

sugeak sorgintzeko hildakoei deitzeko

vum rooh oh

euria behartzeko maremotoei aurre egiteko

vum rooh oh

itzala jira ez dadin eragozteko

vum rooh oh

nire zeruak zabal zakizkidan

— errepidean aurrera ni, umetan, azukre-kanabera-
ren sustraia mamurtzen

— lepoan soka daraman gizona bide odolduan arras-
taka

— zirku itzel baten erdian, nire bekoki beltza asma-
belarrez apaindua

vum rooh oh

hegan gora

dar-dar-ikara baino gorago beste izar batzuetara do-
azen sorginak baino

gorago inork gogoan ez dituela arrozturiko baso eta mendien gorespen basatia mila urterako loturiko uharteak!

vum rooh oh

itzul dadin agindutako garaia
eta nire izena zekien txoria
eta mila izen zituen emakumea
iturri eguzki malko izenak zituena
eta haren adatsa arrain zehezkoa
eta haren urratsak nire aroak
eta haren begiak nire urtaroak
eta kalterik gabeko egunak
eta laidorik gabekoak gauak
eta isil-lagun izarrak
eta elkar hartzekoa haizea

Baina nor dabil nire ahotsa bihurritzen? Nork larrutzen du nire ahotsa eztarrian banbuzko mila kako sartuta? Mila kirikino-hesola. Hi haiz munduaren azken mutur zikin hori. Egunsentiko azken mutur zikin hori. Hi haiz gorroto zikin hori. Hi haiz irainaren zama eta zartakoen ehun urtekoa. Hi

haiz nire egonarriaren ehun urteko hori, nire arta-
tzeen ehun urtekoa doi ez hiltzeko.
rooh oh

gure kantuetan zelai sutsuetan lehertzen diren lore
pozoitsuak; enboliaz moztutako maitasun zeruak;
goiz epileptikoak; harea abisalen besarkada zuria,
itsasontzi hondarren beheratzeak
basa-usainek birrindutako gauetan.

Zer egin dezaket baina?

Hasi beharra dago atzera.

Hasi zer?

Munduan hastea merezi duen gauza bakarra:

Munduaren Akabua, alajaina.

Opil mineralezko

oi udazken izugarriko opil mineralezko
handixek sortzen dira altzairu berria eta
porlan bizia

opil mineralezko oi opil mineralezko
non airea alaitasun gaiztoko
xafla zabaletan lizuntzen den
non ur zornatsuak eguzkiaren
masail guriak ebakitzen dituen
gorroto haut

oraindik ikusi egiten dira madras-oihalak emakumeen
aldaketan arrakadak haien belarrietan irribarreak
ahoetan haurrak bularretan eta zertarako segi:
ASKI DUGU ESKANDALU HONEKIN!

Beraz horra hor erronka nagusia eta bulkada
satanikoak eta ilargi gorrixken, su berdeen
eta sukar horien nostalgia-jito lotsagabea

Alferrik daukazue heltzen hogeia aldiz
zuen eztarrien epelean
atsegin huts bera
hitzak ahopean darabiltzagulakoa

Hitzak? Mundu-atalak eskukatzen ditugunean, eldar-
niotan kontinenteak ezkonarazten, ketan diren atearak
bortxatzen ditugunean, hitzak, a bai, hitzak! baina

odol berriko hitzak, maremotoak eta erisipelak direnak, paludismoa eta labaketa txara-suak eta haragia-
ren sugarrak eta hirien sugarrak...

Jakin ezazue ondo:

ez dut egundo jokutzen ez bada mila urtekoaren alde
ez dut egundo jokutzen ez bada Izu Handiaren alde

Zuek etsi beharko duzue nirekin. Nik ez dut zuekin
etsiko-eta!

Tarteka hor ikusten naute burmuin keinu handi ba-
tez,

hodei gorriegi bat atxikitzen

edo euri laztan bat, edo haizealdiaren aurreneko fi-
rrinda,

ez zaitezte lar lasaitu:

Neure buruarengandik bereizten nauen bitelo-mintza
behartzen dut,

Odolez lotzen nauten uhaitzak behartzen ditut

Neu baino ez naiz ene esertokia gordetzen duena az-
ken maremotoko azken olatuko azken trenean

Neu baino ez naiz mihia azken estutasunaz
askatzen duena

Neu baino ez naiz oi, neu baino ez
birjina-esnezko lehenbiziko tantak
ziurtatzen dituen xirulan

Eta azken arraioa! orain:
eguzkiari (ez da aski nire buru sendo hau mozkortze-
ko)
irinezko gauari ipurtargi aldakorren urrezko
errunaldiak dituela labar gainean
dardaraka dagoen adatsari han non haizea zalditeria
gazi etenez
jauzika dabilen
exotismoa ez dela niretzako bazka irakurtzen dut ni-
re taupadan

Deiadarrez itotako Europatik irtetean
etsipenaldi isilak
Europa izututik berpizturik harrotu eta

handietsitik irtetean
maite dut egoismo eder hau
eta arriskatzen dena
eta branka-ola zorrotza dakarkit gogora
nire lurgintzak

Zenbat odol oroimenean! Nire oroimenean aintzirak
daude. Hildakoen buruez estaliak. Ez igebelarrez be-
teak. Aintzirak nire oroimenean. Hauen ur ertzean ez
da emakumeen gerripeko oihalik.

Odolez inguratua dago nire oroimena. Nire oroime-
nak hildakoz osaturiko gerrikoa du!
eta gure matxinada bilauak egokiro arrosatu dituen
ron barriken metraila, askatasun ankerra drangaka
edateagatiko harridura begi gozoetan

(negro-guztiak-berdinak-dira, neuk-diotsut
bizioak-bizio-guztiak, neu-naiz-diotsudana
negro-hatsa, horrek-hazten-du-kanabera
gogoratu-esaera-zaharra:
negroa hebaintzea hari jaten ematea da)

kulunkaulkien inguruan
zartakoen atseginkoitasuna darabildala gogoan

jira eta bira dabilen moxalemea naiz

Edo aiseago, zeinen maitatuak garen!

Zantartasunez alai, jazzez beratuegi

hain aspertuak daude beti.

Badakit zer diren tracking-a, Lindy hop-a eta matrakak.

Aho onentzat gure lantuez eginiko sordina ua-ua.

Itxoin... dena bere lekuan da. Nire aingeru onak neona du bazkatzen. Nik atabal makilak ditut irens-ten.

Ene duintasuna gonbito artean dabil iraulika.

Eguzkia, Eguzki Aingerua, Eguzkiaren Aingeru kizkurra

doilorkeriaren uretako igeriketa berdexkaz eta gozoaz haragoko jauzirako!

Baina azti okerrarengana jo dut.

Exorzitaturiko lur honen gainean, bere asmo gaizto zoragarritik jitoan askatua, emekiARRANTATURIK, alferrik, alferrikARRANTATURIKO ahots hau da garrasi dagiena.

eta erantzunik ematen ez duten gure gezurren si-
maur pilatua baino ez dago.

A zer erokeria txiribuelta zoragarri hura, ttipitasuna-
ren gainean amestu dudana!

Alajaina, bai gerlari handiak direla Zuriak!

Hosana nagusiari eta negroen irentzaileari!

Irabazi duzue! Irabazi duzuela diotsuet! Garaituak
pozik daude! Kirats alaiak, lokatz-kantuak!

Espero gabeko barne iraultza ongile hau dela-eta,
ohore ene itsustasun nazkagarriei.

San Joan Bataiatzailearen egunean, aurreneko
itzalak Gros-Morne gainera datozelarik, ehunka zaldi
tratalari biltzen da *De Profundis* kalean,

izenean behintzat zintzoa da, jendearen emanak dios-
ku non diren Herioren bazter-auzoak. Eta Heriotik da
egiatan sortu, haren bertako mila itxuretatik (Para-
belarrez ase ezineko goseak eta destilategietako es-
klabotasun uztaiak) sortu hesitu gabeko bizitza gai-
tzera zamalko suharren behorreria. Hango lauhaz-
kak! Hango irrintziak! Hango gernu zintzoak! Hango

gorotzen ederra! “Gaineraigo ezin dakion zaldi ederra!” —“Eztenaren mina den zer dakien behor harroa!” —“Moxal izukaitz hanka ederra!”

Eta aitakide azkarra, txalekoan alderik alde erloju kate bikaina duela, horra non doan titi beteen, gaztetasun suharren, egiazko biribiltasunen txokora, edo liztor adeitsuen ohiko handituetara, edo jengibrearen hozkadetara, edo dekalitro bat azukre-uraren isurtze osasungarrira.

Ez dut nahi ene handituak benetako loriak balira bezala hartzerik!

Eta barre giten diot garai bateko ume-irudimen hari.

Ez, ez gara sekula Dahomeyko erregearen amazonak izan, ez zortziehun gameluren jabe ziren Ghana-ko printze-printzesak ere, ez mediku Timbuktun Askia Handiaren garaian, ez arkitekto Djennen, ez madish eta ez gerlari. Ez dugu behiala lantzarekin ibili zirenen errea sentitzen galtzarbeetan. Eta gure historiatik ezer ez gordetzea erabaki dudanez (nik, arratseko bazka bere itzala duen ahariari baino mira handiagorik ez dion honek), aitor dut beti izan garela pla-

ter-garbitzaile kaxkarrak, ganorarik gabeko oski-ar-
gitzailleak, eta onenean, azti saiatu samarrak, eta du-
gun errekor garbi bakarra zigor-zartak jasatearena
da...

Eta herri honek astazakil batzuk izan garela dio
mendez mendeko oihuan; gizateriaren taupadak ne-
greriaren atarian gelditzen direla; kanabera samur
eta kotoi zetatsurako batetik besterako simaurtegi
zantarra baino ez garela; eta burdina goriaz marka-
tzen gintuztela eta geure pixa-gorotzen gainean egi-
ten genuela lo eta plazaren erdian saltzen gintuztela
eta Ingalaterrako kana bete oihalek eta Irlandako
okela gaziak geuk baino gutxiago balio zutela, eta he-
rri hau lasai bizi zela, bare, Jainkoaren izpiritua haren
egintzetan zegoela esanaz.

Gu negrontziaren oka

Gu Kalabarretako ehiza

zer? Belarriak tapatu?

Gu, balantzadez, barre algarez, lanbro arnastuz hor-
di!

Barka, zurrumbilo adiskidea!

Hor entzuten ditut madarikazio kateatuak kalan gora, hil hurrari direnen zotinak, itsasora bota duten baten zalapasta... umeginean ari den baten orroak... eztarri bila ari diren harramazkak... zartailuaren irribarre burlosoa... neke arteko bizkarroien nahas-mahas...

Ezerk ez zuen lortu mentura zintzo etsitu baten aldeko borrokan sar gintezen.

Hala bedi. Hala bedi.

Ni ez naiz kantzelaritzek aurreikusitako inongoa.

Axut buru-neurgailuari! Homo sum etab,

Zerbitza dezatela eta traditu eta hil.

Hala bedi. Hala bedi. Hala zegoen idatzia haien aldaka jitean.

Eta ni, ni

ukabila estututa kantuan ari zen hura.

Jakin beharrekoa da noraino eraman nuen koldarke-ria.

Gau batean tranbia batean negro bat nuen aurrean.

Orangutan bat bezain handikotea zen, ttattar egin nahian tranbiako eserlekuan. Eserleku zikin hartan utzi nahian hanka luze haiek eta boxeolari gosetua-

ren esku dardaratiak. Orok zuen abandonatua, denak abandonatzen zuen. Haizeak berdindutako penintsula zirudien sudurra eta haren negrotasuna bera, gero eta kolorgeagoa larru zuritze etengabearen menpean. Eta larrugilea Miseria zen. Ustekabeko saguzar lodi bat, aurpegian egindako atzaparkadak orban-tzean irla troko zikinak utzi zizkiona. Edo behargin nekaezina zen Miseria hori, bineta itsusiren batean ari zena. Primeran ikusten zen nola hatz lodi saiatu gaiztoak moldeatua zion bekokia erliebean, nola zulatu zion sudurra bi tunel paralelo eta kezkarri egin-da, nola zion luzatua ezpainetako neurrigabekeria hura, eta karikaturaren maisu-lan haren bidez, nola zuen orraztua, limatua eta bernizatua kreazioko belarritxo txikerren hura.

Erritmorik eta konpasik gabeko negro zarpail bat zen.

Odolduriko begi utziak zituen negro bat.

Lotsarik gabeko negro bat, oinetako irekien babes-zulotik behatzak kirats batean barrez zituena.

Ezin liteke besterik esan, miseriak lanak hartu zituen hasitakoa burutzen.

Begi-zuloa ere egina zion, hauts eta makarrezko makillajez apaindua.

Tira egina zion barailetakako kako sendotik hasita higaturiko masail zahar baten hezurren tarterainokoa. Egunetako bizarraren hesola dirdiratsuak sartu zizkion azpian. Aztoratua zion bihotza, makurrarazia bizkarra.

Eta denak zer zuen osatzen? Negro ezin itsusiago bat, negro petral, negro malenkoniatsu, negro erori bat, eskuak otoitzean zituena makila adabegitsu baten gainean. Zarpailduriko jaka baten barruan lur emandako negroa. Negro zatar barregarri bat eta nire atzean emakume batzuk begira irriz.

BARREGARRIA ZEN, ETA ZATARRA,
benetan BARREGARRIA ETA ZATARRA
Irribarre lagunkoi bat erakutsi nuen...

Hara osteria ere koldarkeria nigan!

Agur bat ene eskubide zibilei eta ahitu hurran dudan odolari eusten dieten hiru mendeei.

Ene heroitasuna, sekula halako fartsarik!

Neurri-neurrira egina dut hiri hau.

Eta ene arima etzana dago. Hiri hau ugerretan eta lokatzetan bezala.

Hiri hau, ene lokatzezko aurpegia.

Karkaxaren gorespen burrunbatsua eskatzen dut ene
begitartearentzat!

Orduan, horrelakoak izanda, gureak al dira bulkada
adoretsua, belaunburu irabazlea, etorkizun zokorre
betetako ordekek?

Tira! Nahiago dut aitortu eldarnioak naroki izan ditu-
dala, belaunburu hordi bat balitz bezala, burmuin
barnean dudala bihotza.

Ene izarra orain, guaragao goibela.

Eta amets zahar honen gainean ene ankerkeria kani-
bal oro:

(Balak aho-zuloan listu lodia
gure bihotzak zart eguneroko doilorkeriaz
kontinenteek hautsi egiten dituzte istmoen arteko lo-
tura hauskorrak
ibaien zatiketa nahitaezkoei jarraikiz jauzi egiten du-
te lur sailek
eta mendez mende oihua bere baitan itoa burkaitza
bera da era berean isiltasuna porroskatzen duena
eta herri hau, punpaka dabilen ausardia

eta gure soin-atalak tortura erarik bikainenak alferrik
bereziak
eta bizitzarik oldartsuena, simaurtegi honetatik sor-
tzen
bat-bateko guanabanaoন্দো
ogi-arbolen fruitu ustelen artean bezala!)

Ene amets zahar honen gainean, ene ankerkeria kani-
bal oro:

Harrokeria ergelaren atzean gorde ohi nintzen, hala-
beharra nuen deika, eta hona hemen gizona behegai-
nean, barreiatua defentsa hauskorra, zapalduak bizi-
arau sakratuak, ageria dauden ele harroak haizea as-
katzen zauri bakoitzetik.

hona hemen gizona behegainean
eta haren arima biluzik bezala
eta horra halabeharra garaile bere azal-berritzeari
begira
axuka zuen arimaren betiereko lokatzatan

Eta hau ondo dagoela horrela diot.

Ene bizkarrak garaipen betean leherraraziko du zun-
tzen laxatzea

Esker onez galtzada-harriztatuko dut ene berezko eskuzabaltasuna

Eta esklabotzaren ospe sasoiko babuino liriko estaltzaile,

Habanako zaldi-mutilaren zilarrez apainduriko jardunak

aurrea hartzen utziko dio ene gogo biziari.

Eta hau horrela ondo dagoela diot.

Ene arimaren alderdirik soilenerako bizi naiz.

Ene mamien alderik lausoenentzako!

Antigoaleko beldur eta berotasunezko egunsenti epela

gure odol otzanak madreporan kantuan darabilen ikara arruntez ari naiz dardaraka

Eta ene jatorri miragarritik ene baitan sortu diren zapaburu hauek!

ez sutautsa ez iparrorratza asmatu ez zuten haiek
ez baporea ez elektrizitatea inoiz bezatzen jakin ez
zuten haiek

ez itsasoa ez zerua esploratu gabe

minaren herriko zoko guztiak ezagutzen dituzten
haiek
bidaietatik deserrotzea baino ezagutzen ez duten
haiek
belaunikatzeetan loeroan geratu diren haiek
bezatuak eta kristautuak izan ziren haiek
bastartasuna txertatu zitzaaien haiek
ezer gabeko eskuen tam-tama
zauri ozeneko tam-tam hutsak
traizio akituko burlazko tam-tamak

Antigoaleko berotasun eta beldurrezko egunsen-
ti epela
kareletik behera aberastasun txundigarriak
kareletik behera ene benazko faltsukeriak

Baina zein harrotasun arrotzek argizatzen nau bat-
batean?

betor euli-txoria
betor gabiraia
betor ostertzeko zirrikitua
betor kinozefaloa
betor lotoa munduaren zamaketaria

betor izurdeetatik perla-matxinada
itsasoaren maskorra hautsiko duena
betor irla murgilaldia
betor haragi hilaren egunen desagertzea
harraparien gobelan
betoz uraren arrabak non geroak
astintzen dituen bere buru ttipiak
betoz
otsoak gorputzeko zulo basatietan bazkatzera
aterpe ekliptikoan nire ilargiak eta zure eguzkiak
elkar kausi dezaten orduan

bada ene gangailaren zuhurtziapean basurde-zuloa
badira egunaren harri grisaren pean
marigorri mulko ñirñirkari diren zure begiak
bada nahas-mahasaren begiradan enara hau
menda eta iruntzizkoa desegin ohi dena
beti berriro jaiotzeko zure argiaren itsasgorarekin
(jabalaraz eta sehaska ezazu, o hitz enea
udaberriko mapa beti berriro egiteko dagoela ez da-
kien haurra)

belar hostoak abelgorrientzat kulunkatuko dira
esperantzaren ontzi eme tirainaren alkohol imintzio
luzea

inoiz ikusi gabeko bere eraztunaren begiko izarrek
iluntzearen beirazko organoaren tutuak dituzte moz-
tuko

gero nire nekearen moko emankorraren gainean
barreiatuko dituzte ile-orratzak
odol-belarrak

eta zu astro hori atera ezazu arren zure muin argitsu-
tik lemuriar

gizonaren hazi hondogabekotik emakumearen sabel
dardarkariak

minerala balitz bezala daraman ausargabeko forma

o argi adiskidezko!

o argiaren iturburu hozkirri!

ez sutautsa ez iparrorratza asmatu ez zuten haiek
ez baporea ez elektrizitatea inoiz bezatzen jakin ez
zuten haiek

ez itsasoa ez zerua esploratu ez zuten haiek

baina haiek gabe lurra ez zen lur izango

lurrak desertatu arau, txalkortasuna orduan eta onu-
ragarriago

lurra batez ere

lurrak lurminen duena gorde eta umotzen deneko zi-
loa

nire negrotasuna ez da harri bat, bere gorrieria
egunaren aldarriaren kontra oldartua
nire negrotasuna ez da ur hilezko hodeia
lurraren begi hilaren gainean
nire negrotasuna ez da ez dorre ez katedral
murgil egiten du lurreko haragi gorritan
murgil zeruko haragi egarrituan
zulatu egiten du hildura opakoa bere egonarri zuze-
naz

Hura bai, kailzedrat nagusia!
Haiek bai, inoiz ezer asmatu ez duten haiek
inoiz ezer esploratu ez dutenak
inoiz ezer bezatu ez dutenak

baina zurturik, etsi egiten dute edozeren esentziaren
aurrean
azalean dagoenarekiko ezjakin baina edozeren bate-
tik besterakoak liluratuak
ezer bezatzeko ezaxolati baina jokoan munduaren jo-
koan

munduaren oinordekoak dira zinez
munduaren hats guztiekiko porotsuak

munduaren hats guztien haurridetasunezko gunea
munduko ur guztien isurbiderik gabeko ohea
munduko su sakratuaren pindar
munduaren haragiaren haragi
munduaren beraren batetik besterakoarekin batera
taupa-taupa dagiena

Antigoaleko dohainen egunsenti epela

Odol hau! Odol hau! Gure odol guztia eguzkiaren
bihotz arrak emana
olio-soinekoa daraman ilargiaren emetasuna ezagu-
tzen duten haiek
antilopearen eta izarraren arteko asaldatze adiskide-
tua ezagutzen duten haiek
biziraupena belarraren ernamuintzearekin batera do-
akien haiek!
Hara munduaren uztai perfektua eta bat-etortze
itxia!

Entzun mundu zuriari
hain nekatua hainbesteko ahalegina eta gero
giltzadura bihurriak izar gogorren pean karraska

altzairu urdineko zurruntasunak haragi mistikoa al-
derik alde zulatzen

entzun haien traiziozko garaipenei derroten-aldarria
jotzen

entzun alibi handiosei estropezu ezdeusa

Erruki zaitezte gure garaile orojakile eta xaloez!

Inoiz ezer asmatu ez duten haiek

Inoiz ezer ustiatu ez duten haiek

inoiz ezer bezatu ez duten haiek

Hara alaitasuna

Hara maitasuna

Hara errapeetako malko berraragitueta mina

eta egunsenti honen hondarrean ene giza otoitza
ez dut ez negarrik ez oihurik entzun nahi, begiak fin-
ko

profetizatzen dudan hiri honetan, eder,

emadazue aztiaren basa-fede hori

eman ene eskuei modelatzeko indarra

eman ene arimari ezpataren adorea

ez naiz isilean joango. Egin ene buruaz branka-buru
bat

eta nirekin, maitea, ez egin ez aita bat ez neba bat
ezta seme bat ere, baizik eta aita, neba, semea,
ez senar bat, herri bakan honen maitalea baizik

Egin nazazue menderaezin harrokeria guztiekiko,
baina gozo haren jenioarekiko
ukabila beso luzatuarekiko legez!

Egin nazazue haren odolaren komisario
egin nazazue haren erresuminaren jagole
egin nirekin akabuko gizona
egin nirekin hasierako gizona
egin nirekin baitaratze gizona
baina egin nazazue ereile

egin nazazue egintza handi hauen esku
iritsi da gerrialdea estutu eta gizon adoretzu gisa
agertzeko garaia

Baina horrela eginda, bihotza, libra nazazue gorroto
guztitik

ez egin nirekin gorroto-gizon hori
gorrotoa baino ez diodana

arraza bakar honetan gotortzeko
baduzue hala ere ene maitasun zapaltzailearen berri
badakizue ez dela beste arrazei gorroto diedalako
nagoela behartuta arraza bakar honen maiseatzaile
izatera
eta nik nahi dudana
gose unibertsal honengatik
egarri unibertsal honengatik

bere intimitate zerratutik azkenik libre dela
behartzea da fruituen gozoa ateratzera

Ikusi gure eskuetako zuhaitza!
Hor dabil guztientzat jira-biraka
enborreko zauriak ebaki eginik
guztientzat lantzen du lurra
datorrela hordialdia lurrin-erauntsizko abarretara!

Baina biharko baratzeetara jo aurretik
egin nazazue hura merezi izateko gauza haien itsaso-
gerrian
emadazue ene bihotza lurraren zain nagoela
emadazue ozeano antzuan
baina amularen promesa laztantzen duen horretan

emadazue ozeano askotariko honen gainean
piragua harroaren egoskortasuna
eta haren itsas kemena

Hona non datorren olatu hautsien gainean gora eta
behera

hona non dabilen herriaren uherduraren aurrean
dantzan

hona hemen puzka karrakela handiaren zorabioan
hona hemen karrakela handian lauhazkan gora bur-
kaitzen zalantzaraino

eta hona hemen hamaikagarrenez arraunaren ahale-
gin bizkorra

ura behartzen,

piragua olatuaren zurrunbilopean muturra zut, bidea
hautsi du,

ihes egin nahi du, baina arraunaren laztan zakarrak
birarazita,

hotzikara dabil olatuaren bizkarrezurrean,

itsasoa lerdea dariola eta orroka

eta hor doa piragua lera bat hondar gainean bezala.

Egunsentiko hondar orduan, ene otoitz adoret-
tsua:

emazkidazue itsaso harroaren gainean dabilen pira-
gua horren giharrak
eta berri onaren karrakela handiaren bozkario sines-
garria.

Begira, ez naiz gizon bat baino, ez du inongo narria-
tzek ez inongo listuk asaldarazten,
ez naiz dagoeneko hau guztiau sumindurarik gabe
onartzen duen gizon bat baino
(bihotzean ez da maitasun neurrigabekoa besterik,
oro su)

Onartzen... onartzen... osorik, oso-osorik...
ene arraza hau
inongo liriok eta isipu-belarrek garbi ez lezakeen hau
ene arraza hau orbanek jana
ene arraza hau mahats ale heldua oin hordientzat
karkaxa eta legen beltzen ene erregina
ene erregina zartailuena eta eskrofulena
ene erregina ezkatena eta orbanena

(oi erregina horiek, garai batean gaztainondo-kandelek argituriko udaberri lorategi urrunetan hainbeste maite izan nituenak!)

Onartzen. Onartzen.

eta zigorra jasotako negroaren hitzak: “Barka, nagusi”.

eta legez dagozkion hogeita bederatzi zartakoak

eta lau oin garai den ziega

eta pikota

eta ene zimarroi ausardiari ebakitako hanka-zaina

eta ene bizkar-gantzari su goriz darion lis lorea

eta Vaultier Mayencourt jaunaren txakurtegia

non sei hilabetez ur-txakur baten moduan zaunkaka

aritu izan nintzen

eta Brafín jauna

eta Fourniol-eko jauna

eta Mahadiere-ko jauna

eta pianeria

eta zezen-zakurra

eta suizida

eta promiskuitatea

eta bortzegiak

eta zepoa

eta oinaze-astoa

eta habea

eta kopetakoa

Ikusi! Umiliatu naiz nahikoa? Badut aski maskur belaunburuetan? Aski gihar bai saihetsondoan?

Lokatzetan arrastaka ibili. Lokatzarik handienez katigatu. Lepoan hartu.

Lokatzezko behegaina. Lokatzezko ostertza. Lokatzezko zerua.

Lokatzezko hildakoak, esku ahurrean sukar hatsez berotu beharreko izenak guztiak!

Simeon Piquine, ez aitarik ez amarik ezagutu ez zuen hura, inongo herriko etxek inoiz ezagutu gabe bizi osoa bere izenaren bila aritu zena

Gradvorka —berari buruz dakidan gauza bakarra da hilik dagoela, uzta-arrats batean txikitua; dirudie-nez, martxan zebilen lokomotoraren gurpilpean hondarra botatzea zuen egitekoa, toki gaitzetan aurrera egin zezan.

Michel, izen arrotz batez sinatzen zuen idazten zidanean. Michel Deveine helbidea *Auzune Abandonata* eta zuek bizirik zareten haien anai-arrebok Exelie Vête Congolo Lemke Boussolongo, zein sasi-medikuk zurrupatuko luke ezpain lodiz poziaren sekretu sendoa zauriaren muin-muinetik?

zein azti zuhurrek askatuko lituzke zuen orkatilak uzta hiltzaileen epeltasun loditik?

Agerpenok, ez dut zuen bizkar egingo munduarekin bakerik.

Irlak uraren orbain

Irlak zaurien agiri

Papur irlak

Txosten irlak

Irlak uraren gainean urraturiko paper kaxkarra

Irlak Eguzkiaren bizkar errearen gainean elkarren ondoan ezarritako epaitondoak

Arrazoi uzkur hori, ez didazu eragotziko ene egarriaren

Arrazoi uzkur hori, ez didazu eragotziko uretara
burugabeki jaurtitzea ene egarriaren korronteen
menpe
zuen forma horiek, irla desitxuratuok,
zuen akabua, ene erronka.

Irla eraztunduok, gilape eder bakarra
Eta ene ozeano-eskuz zaitut laztantzen. Eta jira era-
giten dizut ene hitz alisioez. Eta ene alga mihiz zaitut
milikatzen.

Eta piratengandik urrun zaramatzat.

Oi herio, zure zingiraren astuna!

Naufragioa, zure ontzi-hondakinen infernu! Onartzen
dut!

Egunsentiko hondar orduan, ur urdindu galduek, lu-
rrin alderraiek, huts egindako urakanek, ontzi-krosko
soilek, aspaldiko zauriek, hezur ustelek, lurrunek, su-
mendi lotuek, gaizki erroturiko hilek, egin samintasun-
ez oiheri. Onartzen!

Baita neure-neurea den geografia ere; neu ibiltzeko
eginiko mapamundia, ez ordea jakintsuen kolore hau-

tazkoez margoturikoa, neuk isuritako odolaren geometriaren araberakoa baizik, onartzen

eta ene biologiaren ausardia, ez dena aurpegi-ertz baten gatibu, ez ilaje batena, ez sudur aski zapal batena, ez larruazal aski melaninatu batena, eta negro-tasuna, dagoeneko ez dena indize zefaliko bat, edo plasma, edo soma bat, oinazearen konpasaz neurtzen da

eta negroa gero eta umilago, koldarrago, antzuago, ez hain sakona, lekorantz xaretuago, bere burutik bereiziago, bere buruarekin zorrotzago, bere buruarekiko ez hain ondoko,

onartzen, onartzen hau guztiau

eta oilaurren zorne-jarioaren sizigiapean lehertzen diren olatuen jauregizko itsasotik urrun, herriaren soina ene besoen etsipenean ederto baten etzanik, bere hezur hautsiekin eta zainetan odola zalantza batean dabilkiola, bulboaren mutur zaurituan esne-tanta bezala...

Eta hona non bat-batean indarrak eta bizi-nahiak zezen baten moduan eraso eginda bizitza-uhinak burkaitzaren mihi-papila inguratzen duen, eta hemen dira odola berritzen ari diren zain eta arteriak, eta arnasa hartzen duen zikloi-birika, eta sumendien gar altxortua eta taupada sismiko ikaragarri hori, ene sute sendoaren gorputz biziaren konpasa daramana.

Eta orain zutik gaude ene lurra eta biok, haizeak tximak laztantzen dizkigula, eta ene esku txikerra haren ukabil handian, eta indarra ez dago geugan, geure gainetik baizik, gaua zein entzuleria liztor apokaliptiko batek bezala zulatzen duen ahots horretan. Eta ahotsak dio mendez mende Europak gezurrez gaituela gizendu, kiratsez gaituela puztu, ez baita egia gizakiak bere eginbearra amaitu duela ez baita egia ez dugula zereginik mundu honetan bizkarroi hutsak garela munduan aski dugula munduaren pausoan ibiltzea gizakiaren eginbearra hasi baino ez baita egin gizakiari dagokio honen gogo biziaren zoko guztietan gogortutako debeku oro konkistatzea eta ez da inongo arrazarena ez edertasunaren monopolioa, ez adimenarena, ez indarrarena

eta guztientzako tokia dago konkistaren hitzorduan eta orain badakigu eguzkia dela gure lurraren jiran dabilena gure borondate hutsak finkatu duen eremua argitzen eta edozein izarrek gure mugarik gabeko ahotsak aginduta egiten duela zerutik lurrerakoa.

Orain badakit zein den Jainkoaren epaiketaren esanahia; ene herria arbaso bambaren "gauaren lantza" da, kizkurtu egiten dena, eta oilasko-odolez bustiz gero azkonak etsi-etsian kirtenerantz ihes egiten dio-na eta dioena giza-odola dela bere izaerak behar due-na, gizakiaren gantza, gibela, bihotza, ez oilasko-odola.

Eta nik giza-bihotzak behar ditut ene lurrarentzat, ez datil-bihotzak, hartara ate trapezoidal handitik sar nadin zilarrezko hirietan, odol sutua jo dezaten, eta ene begiek gurasoen kilometro koadro guztiak ibiltzen dituzte eta poz tankerako zerbaitez zenbatzen ditut zauriak eta espezie bitxiak balira bezala elkarren gainean jartzen, eta kontaketa luzatu egiten da beti ziztrinkeraren kuinatze ezustekoez.

Eta hemen dira Jainkoaren irudira beharrean deabruarenera egin ez dituztelako bihotza arintzen ez zaien haiek, pentsatzen dutenak negroa izatea bigarren mailako enplegatua izatearen parekoa dela: beti noiz hobetu zain gorago egiteko; beren buruaren aurrean amore ematen dutenak; beren buruaren ziegazuloan bizi direnak; pseudomorfosi harroz biltzen diren haiek; Europari diotsotenak: “Begira, nik badakit nola egin erreberentzia zuri, nola goraintziak eman, azken batean ez naiz zure oso diferentea, ez ezarri begia ene azal beltzari: eguzkia da erre nauena”.

Eta bada negro harroputza ere, negro askaria, eta zebra guztiak beren erara inarrosten dira marrak esne freskoko ihintzetan eror dakizkien.

Eta honen erdian diot “hori duk-eta!” aitona hiltzen ari duk, “hori, hori!” diot negrotasun zaharra hilotz bihurtzen ari duk.

Ez da “negro ona zen” esan behar.

Zuriek negro ona zela diote, benetako negro on bat, ugazaba onaren negro ona.

Eta nik “hori duk-eta!” diot.

Arrunt negro ona zen,
miseriak bular eta bizkar zuen zauritua, eta muinetaraino sartua zioten halabeharra zuela berarekin, eta ez zegoela hau nahierara erabiltzerik, ez zeukala zeregirik; bazela Jaun maltzur bat antzina-antzinatik utzi zituenak idatzirik debeku-legeok haren pelbisean; eta negro ona zela; eta benetan sinetsi beharra zuela zantarkeria hartan, hieroglifiko zorigaiztokoetan inoiz muturrik sartu gabe.

Arrunt negro ona zen

eta ez zitzaion egundo otu aitzurtu, zulatu, moztu egin zezakeela benetan guztia, gusturik gabeko kanabera ez zen beste edozer

Arrunt negro ona zen.

Eta harriak botatzen zizkioten, txatarra puskak, botilak, baina ez harri haiek, ez txatarrak ez botilek...

Oi, Jainkoaren urte geldoak tontor lurtar honen gainean!

eta eulien xurgatze eroarekin lehian zartailua gure zaurien ihintz gozoagatik.

Eta diot “hori duk-eta!” Negrotasun zaharra gero eta hilotzago dago ostertza xaretzen ari da, atzera egiten du, zabaldu egiten da eta hodei tarrataden artean zeinu baten distira ageri jarria da

negrontziak karrak dagi nonahitik... Sabela dardara-ka du eta hots hori... Daraman kargaren tenia beldur-garriak itsasoetako titi-umearen heste kirastuetan karrask!

Eta ez dobloi-poltsaren antzera puzten diren ontzi-oihalen pozak eta ez polizia-fragaten lelokeria arriskutsuari egindako amarruek eragozten diote barne-barneko sarramusken mehatxua entzutea.

Ez alferrik honetaz ahazteko negrorik zaratatsuena esekitzen du kapitainak masta nagusitik, edo itsasora botatzen, edo zezen-zakurren artera hauek jan dezaten

Eta tipula frijituaren usaina duen negrailak isuritako odol honetan du berriz ere askatasunaren zaporea aurkitzen.

Eta zutik da negraila

Eserita zegoen negraila

zutik bat-batean

zutik kalatu gainean

zutik kamaina gainean

zutik zubi gainean

zutik haize gainean

zutik eguzkitan

zutik odoletan

zutik

eta

aske

zutik eta ez ero zahar itsas askatasun eta txirotasun-
nean noraez perfektuan jiraka

eta hemen da:

ezustean zutik

zutik sokateriaren gainean

zutik lemparen aurrean

zutik itsasorrazaren aurrean

zutik maparen aurrean

zutik izarpean

zutik

eta

aske

eta ontzi lustrala ur zapuztuan poparan

Eta gure lotsaren borlak orain usteltzen dira!

eguerdiko itsaso zartatuan

gauerdiko eguzki ernamuinduan

entzun ekialdeko giltzak dituzun gabirai hori

egun desarmatuan

euriaren harrikadan

entzun mendebaldea zaintzen duzun marrazo hori

entzun iparreko zakur zuria, hegoaldeko suge beltza

zeruko gerrikoa lotzen duzuenok

Zeharkatu beharreko itsasoa dago oraino

oi, zeharkatu beharreko itsaso bat oraino
neure birrikak asma ditzadan
printzea isil dadin
erreginak musu eman diezadan
itsaso bat oraino hiltzeko
ero bat entregatzeko
dirdira ene arimak zaunka dirdira egin dezan
zaunka zaunka zaunka egin dezan
eta egin dezala ulu mozoloak ene aingeru begiluze
horrek
Irrien maisua?
Isiltasun zoragarriaren maisua?
Esperantzaren eta etsipenaren maisua?
Nagitasunaren maisua? Dantzen maisua?
Neu nauzue eta!

eta honegatik, Jauna
lepo hauskorreko gizakiok
jaso eta har ezazu
halabeharrezko jabalaldi triangeluarra

Zatozte hona, ene dantzok!
negro gaiztoaren dantzok
zatozte, ene dantzok!

dantza uztai-hauslea
dantza ziega-huslea
dantza on-da-eta-eder-eta-haizu-negro-izatea
Zatozte hona, ene dantzok! eta jauzi dagi eguzkiak
eskuan dudan erraketan
alabaina ez dut aski bestelako eguzkia
kiribil zaitez, haize hori, ene hazkunde berriaren in-
guruan
pausatu ene atzamar neurtuetan
tori ene kontzientzia eta haragi erritmoa
tori ene ahuldadea erretzen deneko garra
tori presoen katea
tori zingira
tori hiru muturreko zirkuituko *intourist-a*
irentsi eta kiribil zaitez
eta kiri eta bil estutu nazazu
are dardaratiago
estutu nazazu gu haserretu horretaraino
estutu, estutu GAITZAZU
baina elkarri hozka eginda ere
gure odolaren odoleraino hozka eginda ere,
estutu, nire birjintasuna zure birjintasunarekin
baino ez da lotzen
baina orduan estutu

filao estuen sail batean bezala

gauerdian

gure birjintasun kolore askotarikoak

eta lotu, lot nazazu arrangurarik gabe

lot nazazu zure buztin argizko beso handiokin

lotu ene dardara munduaren zilborrari

lotu, lot nazazu, adiskidetasun latza,

eta gero, zure izar begiztaz itota, igo

Uso hori,

igo,

igo,

igo

Atzetik noakizu, ene antigoaleko kornea zurian inprimatua zoazela.

igo zero-milikari

eta aurreko ilargian

neure burua ito nahi izan nuen zulo beltzean

arrantzatu nahi dut orain gauaren mihi gaiztoa

batera-besterako erratzaldian geldirik dabilela!

Tam-tama gauaz

okapi samaldak hutsagatik negarrez atzamar
mamitsuen ibaia

harrien adatsa nahasten mila ilargiren bila dabil
ispilu birakarien

mila diamante-hozkaden otoitzik gabeko mila
mihiren bila

sukarra harrizko eskuen atoian gordean doan biolin-
arkuaren lazeria

itsasoaren simulakroetan murgildutako amets-
irudien itzalari kilika

Euriaren bluesa

Zaparrada
musikari trebea
zuhaitz biluztuaren orpoan
harmonia galduen erdian
gure oroimen akituen hurrean
gure derrota-esku eta
indar ezohiko herrien erdian
begiak galdurik laga
eta sortu berri den
minaren uhala askatuta
negarrari ematen diogu

Lynch

Harakin ukabilak zero ebakiak tindatuak
lastargi bat antigoaleko enborren artean
bazterrik eta oroimenik gabeko begia
jainkoa eta zuen ke urdinak gogaitzen ez duen bat
heriotzaren eta festaren artean
espero gabeko loreez sudur-zuloetan
fosforeszentziaren hegaztien txirri-hegada ezia aldean
eta bizitzaz beteriko kantu zital bat
haren isiltasunaren hondakin suntsiezinaren artean

Burdineriak

bidaldiak lotu erre egiten ditu bideak
behelainoak baino ez ditu gordetzen besoak
palankinaren gainean darama ostera hiria porturantz

zu berriz olatu batek zakartza nire oinetaraino
bapore hau berez lo-kuluxkaren argi-ilunetan soilik
zait ezagun

besarka nazazu estu sorbaldak giltzurrunak

esklaboak

haien irrintzi epela da aparra
kala txikietako ur lokaztua min hau eta gero ezer ez
gauaren ontzi-masailean gu biok
gaur orduan bezala
bihotz astunez zamaturiko esklaboak
eta hala ere bihotza hala ere bagoaz
ez hain zorabiatuak proatik poparako
bilin-balaun hauen mendean

Askatasun garaia

Askatuak zituen whiskiak txima zikinak
eta fusilen indarraren azal gainean zebiltzan
tankearen oskola
eta epailearen biraoak

Oi aintzirarik gabeko eguna
baule herriko mandoa baino egoskorragoa
nork dio Afrika lo dagoela
gure Afrikak eztarria argitzen duela
kola murtxikatzen duela artatxiki-ardoa edaten duela
berriz lo hartzeko?

Gobernadorearen irratiak zabalduak zituen bere
gezurrak
behazuna pilatuta egunkarien behazun-xixkuan
1950eko otsaila zen
hemengo jendearen hiztegian
eguzki gorrailaren sasoia legez ezagutzen dena
Cavally Sassandra Bandama
usaimen txarreko errekastook
basatzen eta euritan mutur dudazkoz zabiltzatenok

hilotzez puzturiko sabela duzuen errekastook
nork esan zuen Afrika ezkutatu egiten dela dardara
dardara egiten duela harmatanarekin berriz
lokartzeko?

Historia ni itzarri egiten den Afrikaz ari naiz
zigarrokinen memoria heteroklitoaren azpian
su beltz bildua pilatu zuten gizakiez
oihanaren gau berde trinkoan barrena
aingeru bat bezala haien sumindura

Historia nik armatzat
ukabil hutsak dauzkan Afrikaz ari naiz
antigoaleko jakinduria duena bere arrazoi
hain berria Afrika ez zara zu ezereen beldur
borroka egiten duzu eta inoiz baino gehiago dakizu
begietara begiratzen diozu
governadore harrapariei bankari igarokorre

eder irainpean Afrika eta zure kontzientzia gorenak
handitua
eta egunaz hain konbentzitua ezen zure gizakirik
onenen hatsak
desagerraraziko baitu tsetse kolonialista

Manua

Ados: bideko arantzez laztutako salbaia bezala
besterik
ez naiz itzuliko oihan oparoetako hiru begiko
arkupetik

kanporatua baina santutegien profanatzaile
eta harriaren lotsa kolpeka zulatzen duen
itsasoaren garaipen atetik barrena itzulita

aldenarazia umeen festetako ogi zuritik
nire mutur arrotz honekin ostera ere haizearen
muturrean sartzen dena haginkadaka sastrakari
biluzgorririk irri arrotz eta lizun honekin

herrialde beltza amets zintzo beltz baten esku dago
lurraren esne beltzez egindako ardo hutsez hordi

Sindikalista beltz baten oroimenez

Ez dakiola ekaitza baretu ez harriak balantza egin
zalantza gabea izan zen bularrari
ez zen haren suzko turuta ilunpetan ez arrisku
gordinean
uzkurtu

Oi goren begiratokitik zelaturiko herria
itsu-makila batez aurre egiten
bidegabekeria eskergaren benetako izenari

Behin sartu nuen zure izena
paisaiaren gunean atzean kanaberadia zela
zutik gure begien zohiaren erdian
handituak eta jainko baten urre beltzezko
haitiar aurpegiaren antzeko

Begiratu logurarik gabeko oihanean
adiskideak emeki ernatzen
betazalak zimurtzen zenituen
zimurtu egiten dituzu egun ere

ez zenuen hitz-erdirik egiten gutxiago egiten duzu
orain

nahikoa zenuen irribarre eginda orain egiten duzun
bezala

ezin gozoago zero-itsasoen azao nahasietatik
indarrez sortua

zer jornal kontuz aritu zara eztabaidan ostera
zure barne beltz eta naroan
piztu dituzu berriro ere ezin gorenago
lokaturiko sugeen korapilo sakratu balira bezala
neguko lur-lanetako amorrua eta grebetako aihotza

eta zer freskuratan ausartzen zara bustitzen
zure ihintz-irribarrea
nola hondamendiaren erdian babestu dituzu
hain jukutria handiz zure indar gaitz gordea
zure nekazari bekoki sendoa
zure begi irribarre-erdiaren gatibu diren ur geldoak

zalantza batek dagi dar-dar nigan
entzuten oihanean lore batzuk
amets bat bide egile

Argialdietako maixu esklabo-askea
izango ote dugu gure atal garbiak oparo
altxatzeko indarrik udaberrian
aro lotiak zain ditugun barreneraino

zeru artega gureak
alizioak zein hegokoak
iratzar itzazue gure arraza hilak
lipar batez astroen liluratzaile
haize kirastua dator ahotz usteletatik
zure herria gose da egarri da
behaztopa egiten du zure herriak
lokatzetatik atera beharreko orgatxoa da
biraoz betea kanaberen gau beltzaren
ibili mutuan aihotzez ero

zu derrota ilunaren arbuio
buruzagi gogor etxoletako euskarri
larru-ontzeen jainko estratetako ogi-ARBOLA

iratze ustelgaitzean egin dut zure taila
oihan barrenean gurtzeko

maiatzak mango bitxieneen buru kizkurra
chabin batena bezala urrekaratzen duenean

zutik jarri zen ametsa zu oinez zu izen baten karra
isiltasun lurralde bateko zientzia ekile baten pean
txakur askok usnatzen zaituzte baina
ez da bakar bat ausartzen zuri bidea zarratzen
erori ziren zure harresiak zikinak daude zidorrak
kanaberadietan bere buruaz beste egiten dute
bihotz gorri handiek eta zu oinez zoaz irribarre
egiten diezu zebuen bizkar gainean kaparrak
mokokatzen dituzten azken argi izpiko zozoei

Erakusle

denbora da zerua itzalita dagoela
makurtu egiten da itsasoa sanadipean
eta txori galduak dakartza oster
teilatuta baten balantza eta argia
argia zuk osorik banatzen diezuna
uharri zurtzei bera iragazten duten hostoei
gaizki itzalitako sumendi-harriei
harribitxi bihurturik berriro pizten direnak
burkideen begiei argi bernizatua doi bat odoleztatua

Aintziretako egutegia

zauri sakratu batean bizi naiz
alegiatzko arbasoengan bizi naiz
nahi ilun batean bizi naiz
isiltasun luzean bizi naiz
erremediorik gabeko egarrian bizi naiz
mila urteko bidaia batean bizi naiz
hirurehun urteko gerra batean bizi naiz
erraboilaren eta aldaxkaren artean utzitako
gurtza batean bizi naiz
esploratu gabeko gunen batean bizi naiz
bizi naiz ez basaltoaren joairan
ezpada lababehera azkarrean
ziztu bizian igotzen dena ibar idor
txikian gora eta meskita guztiak isiotzen
ahalik ondoen moldatzen naiz gorabehera hauetara
zentzurik gabe huts egindako
paradisua bertsio honetara
—arrunt okerragoa infernua baino—
noizean behin nire zaurietan bizi naiz
minuturo aldatzen naiz ostatzuz

eta bake orok nau izutzen

suzko zurrunbiloa

besterik ez bezalako aszidia
mundu galduen hautserako

sumendi nire erraietatik ur bizia erauzi ostean
hemen nago neure berbazko ogi eta mineral
sekretuekin

asmo zabal batean bizi naiz beraz
baina gehienetan nahiago izaten dut
neure ideiarik xeheenean babestu
edo formula magiko batean bizi naiz bestela
hasierako hitzetan besterik ez
osterantzeko guztiak ahanzturara doaz
zubipeko hondakin pilaketan bizi naiz
zubi-begiak libratzean
hondamendi handiaren zatian bizi naiz
sarritan mendi tontorrik lehorrenaren
erraperik lehorrenean bizi naiz
—otseme hodei horietan—
zetazeoen areolan bizi naiz
argan arbolaren tititik tiraka dabilen

ahuntz samaldan bizi naiz
egia esan ez dakit zein dudan norabide zuzena
batiala ala abisala
olagarroen gordelekuan bizi naiz
olagarro batekin borrokatzen naiz olagarro-zulo
batengatik

senideok ez tematu
algatzarren nahaspila naiz
kuskuta bezala kiribiltzen
edo odolurra bezala zabaltzen
dena da gauza bera
doala olatua
dakartzala bentosak eguzkiak
astindu dezala haizeak
nire ezaren konkor biribila

presio atmosferikoak edo hobe historikoak
nire hitzetako batzuk hotsandiz itzultzen baditu ere
ez ditu larritu baino egiten nire gaitzak

Itsas zaldien kantua

denboraz kanpo ihesi zoazen itsas zaldia
aurre egiten haizearen zirga-bideei eta uhinei eta
hondar uherrei

itsas zaldi
bizkarra oker haizeak kresaleztatua
burua makur behorren irrintzietarantz zoazena
hegalik gabeko itsas zaldia
memoriarik gabea

korso akabuko hondar eta kontinenteen matxinada
itsas zaldi harroa ozeanoen txistu hotsetan
gaizki erauzitako amodio neurtuetan tematua

egun mukur batean
zamalkatuko zaitugu

eta zuk beldurrik gabe
lauhazkari ekingo diozu
zinez haize kresal eta algen artean

Hatsa

baina hatsa heldu zen
hats esana
hitz gutxitan esana.

alga
 negroen izerdi
 belar
 azukre-kanaberaren ur
 aihotz
 mangle hatsa.

hats esana
 dena esatea da.
hatsa ez da hutsa
 hatsak ez du zimirrik.

Katebegia

kalamu zatiz
egur ebakinez
txatal guztiez
azpikeriaz
palaz jasotako orbelaz
izara kantailez
bilur minduz
behartutako katebegiz
itsasugeen hezurkiz
zigor erauziz
itsas maskorrez
banderaz eta hilobi bakanduz
erauntsi eta erantzi
bidez
zu eraiki

Gauak

Zeharo arruntak dira hemengo gauak
zilar-paperez jantziak
ez dira indar gabeak
eskurik ez duten arren marrazari eusteko
baina indarra dago legean —larriduran
gaua hemen
 beherantz dator
 kilkerretik igelera
 samurkiro oinutsik
 behean
 eraman handiko oilar baten gangarra
 zurrusta biltzeko
ez du beti egun ausartegiak jakinarazten
kudeaketa zelulatik hondamenditik
jaio dela

Dorsale Bossale

bada hiltzen den sumendirik

bada gelditzen den sumendirik

bada haizearentzako besterik ez den sumendirik

bada sumendi erorik

bada sumendi hordirik jitoan dabilenik

bada txakur-taldean bizi eta patruilan dabilen
sumendirik

bada sumendirik tartean behin muturra ateratzen
duenik

benetako itsas txakurra

bada sumendirik beti aurpegia hodei artean
gordetzen duenik

bada errinozero nekatuen moduan iraulkatzen denik
eta haien galaxia-poltsa haztatu egin daiteke

bada sumendi bihozberarik desagertutako herrien
omenez

monumentuak eraikitzen dituenik

bada sumendi jagolerik

etxalde loguratuen Kraal-aren ataria zaintzen duen
artean

zaunka egiten duenik

bada agertu eta desagertu egiten den sumendi
apetatsurik
(lemur-jolasak dira horiek)
eta ez dira txikienak
inongo mendilepok inoiz seinalatu gabeko
sumendiak
hauen arrangurak gauaz obratzen direnak
bada sumendirik ahoa antigoaleko urratuaren
neurriko duenik

Ontasun berria

kontua ez da mundua egunsentiko hiltzaileen esku
uztea

heriotza-bizitza

bizitza-heriotza

goiz-albaren hauspo-emaileak

haien larrutzaile-lepotik zintzilik bideak

oinetako berri-berriak bezala

ez gaude porrotaren aurrean

panelak baino ez dira desagertu gauez

bestela

euren oinatz amorratuak lur gainean

utzi zituzten zaldiak

odol miazkatuak berotutako muturrak

aizto artezak eta adar zoroak

euren zorrotik ateratzen dira

banpiro-txoriak oro moko sutu

itxurakerietan gozatzen

baina baita ibaiei bularra ematen dieten titiak ere

eta eskaintza-eskuen hutsuneetako kuia gozoak

ontasun berri bat dator zerumugan gero eta handiago